Los datos de las personas ganadoras podrán incluirse en actividades de difusión, y serán comunicados al Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco y a la Administración Tributaria correspondiente. No se cederán los datos a terceros, salvo obligación legal, ni se transferirán a terceros países.

Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/0602_es.html

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3242

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita merezimendu-lehiaketa baterako Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko 2021-2022ko aldirako bi dirulaguntza emateko.

Administrazio-jardunbideen plangintza ona egiteko ezinbestekoa da Administrazio Publikoa, Zuzenbide Publikoa eta Administrazio Zientzia aztertu eta ikertzea.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea sortzeko uztailaren 27ko 16/1983 Legeak erakunde horri, besteak beste, xede hauek aitortzen dizkio: EAEko administrazio publikoek lege, finantzaketa eta estatistika arloetan dituzten berezitasunak ikertzea, irakastea eta zabaltzea; eta Administrazio-zientzia ikertzea, irakastea eta zabaltzea, EAEko administrazioetan ezartzearekin batera.

Deialdi hau Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan gauzatzen den dirulaguntza lerro bat da; deialdiaren helburua ikerketa-arlo horiek sustertzea da eta, egingo diren lanen bitartez, EAEko administrazio publikoen eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea. Aipatutako plana IVAPen zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta IVAPeko webgunean argitaratuta dago.

Oinarritzat hartuta bai aurreko deialdietako esperientzia, bai Gizarte Zientzien inguruko ikerketan gaur egun dagoen errealitatea, pentsa dezakegu taldekako ikerketa gero eta garrantzitsuagoa dela eta hortik oso emaitza aberasgarriak lor daitezkeela. Batez ere, kontuan hartzen badugu pertsona ezberdinen ekarpenez hornitzen dela, pertsona horiek ikuspuntu ezberdinak dauzkatela eta, bide horretan, aukera sortzen dela proiektu berean ikertze-ikuspegi ezberdinak aintzat hartzeko.

Hortaz, deialdi honetan bi dirulaguntza aurreikusten dira Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerlanak gauzatzeko. Dirulaguntzok ikerketa-taldeei zuzenduta daude, bai dagoeneko sendotutako taldeei, bai ad hoc eratutako taldeei.

Hori horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bi dirulaguntzatarako deialdia egitea, Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten ikerlanak egiteko, ebazpen honen eranskinean agertzen diren oinarri-arauen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengo araberan. Horretarako, hilabete bat izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsio hori ebazpena eman zuen organoari aurkez dakioko edo, bestela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsioa jarri zenetik hiru

2021eko ekainaren 7a, astelehena

hilabete igarota erantzuna ematen ez bazaio, errekurtsua ez dela onartu ulertu beharko da, eta administrazioarekiko auzietako bidera joateko aukera irekita egongo da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 19a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

ERANSKINA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN, ZUZENBIDE PUBLIKOAREKIN EDO
ADMINISTRAZIO ZIENTZIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAI BATZUEI BURUZKO
IKERLANAK EGITEKO BI DIRULAGUNTZATARAKO DEIALDIA EGITEN DUEN
EBAZPENARENA

OINARRI-ARAUAK

Lehenengoa.– Helburua.

Deialdi honen helburua da: norgehiagoka-prozeduraren araubidez, bi dirulaguntza emateko oinarri-arauak ezartzea, Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerlanak egitearren. Aurkez daitezkeen azterketek eta ikerlanek aipaturiko gaiak jorra ditzakete hainbat ikerkuntza ikuspuntutik, eta EAEko instituzio eta administrazio publikoen jardun publikoaren arloarekin lotura izan beharko dute.

Bigarrena.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Ikerketa sustatzeko bi dirulaguntzatarako deialdia egiten da; dirulaguntzak ikerketa-taldeei zuzenduta daude. Horietako bakoitzak hoge mila (20.000) euroko ordainsaria izango du.

Betiere, dirulaguntzen zenbatekoa kobratzeko eskubidea baldintzatuta dago bukatutako ikerlanek jasoko duten baloraziora, hamaikagarren oinarri-arauaren arabera.

Dirulaguntza horien esleipena eta jarraipenaren kudeaketa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuak egingo du.

Hirugarrena.– Parte-hartzaileen betekizunak.

Dirulaguntzak eskatu ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ikerketa-taldea gutxienez bi ikertzailez osaturik egongo da. Taldea honelakoa izan daiteke: finkatua, edo deialdi honetan parte hartzeko aurkeztuko duen proiektuari ekiteko ad hoc eratua. Eskaeran espresuki adierazi beharko da taldearen kide bakoitzak duen partaidetzaren ehunekoa.

b) Ikerketa-taldearen partaideen erdiek, gutxienez, administrazio-azotartasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izatea 2020ko urtarrilaren 1az geroztik edo lehenagotik.

c) Ikerketa-taldearen partaide guztiak goi-mailako unibertsitate-tituludunak izatea. Atzerrian eskuratutako tituluei dagokienez, homologazioa izan ezean, unibertsitateak edo agintari-akademiko eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar du, alegatutako titulua eman zen estatuan goi-mailako unibertsitate-titulua dela egiaztatzeko.

d) Ikerketa-taldearen partaide guztiek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izango dituzte, bai eta itzulketa-betebeharrak ere.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak automatikoki egiaztatuko ditu organo kudeatzaileak, dirulaguntza esleitu zein ordainketa egin aurretik. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin ahal dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena.– Baztertzeko arrazoiak.

Deialdi honetako dirulaguntzak eskatzen kanpo geratuko dira honako hauek:

a) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat, administrazio-zehapen edo penalen bat izan duten pertsona fisikoak. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean sartutako debekuak eta zehapenak ere barruan direla.

b) Dirulaguntza hauek edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ikerketa sustatzearen deitutako bestelako dirulaguntzak hartu dituztenak, azken hiru urteetan. Epe hau dirulaguntza ematen duen ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Era berean, dirulaguntza hauek ezin izango dira bateratu proiektu bera egiteko beste edozein laguntza edo dirulaguntza publiko nahiz pribaturekin, doktore-tesiak egitera zuzendutako bekak eta dirulaguntzak barne.

c) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako beste kasuren batean dauden pertsonak.

Dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta organismo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen prozedura. Era berean, dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da jasotako dirulaguntza itzultzea, baldin eta itzulketa-prozedura bat amaitzen denean horretarako ebazpena ematen bada.

Oinarri-arau honetan jasotzen diren baztertzeko arrazoiak taldeko eskatzailearen bati bada- gozkio, akatsak zuzentzeko epearen barruan, ikerketa-proiektua eta ikerketa-taldea egokitzeko aukera emango zaie, deialdian ezarritako betekizunetara egokitzeko. Zuzendu ezean, baztertzeko arrazoi horiek ikerketa-taldeko kide guztiei eragiten dietela ulertuko da.

Bosgarrena.– Betebeharrak.

Dirulaguntzak jasotzen dituztenek betebeharrak hauek dituzte:

a) Deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituen ikerlana garatu, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen aurkeztu beharko dute; ikerlanak monografia bat izan behar du, eta dirulaguntzaren esleipena jaso zuen ikerketa-proiektuaren memorian proposatutako gaia garatu beharko du, memorian bertan azaldutakoaren arabera. Halaber, ikerketa-taldeko kide bakoitzak eginda duen lana ikerketa-proiektuaren memorian adierazitako moduan gauzatu beharko du.

b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin bildu beharko dira, hala eskatzen bazaie.

Era berean, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arabera, dirulaguntza hauen jasotzaileen betebeharrak hauek ere izango dira:

a) Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundeari frogatu behar dio eskatzen diren beharkizunak eta baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko helburua den jarduera egin dela.

c) Erakunde emaileak beharrezko ikusten dituen egiaztatze-jarduketak onartu behar ditu jasotzaileak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura jasotzen diren laguntza eta dirulaguntzei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten dituen kontrol-jarduketan esanetara egon behar du, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoenetara ere.

d) Erakunde emaileari jakinarazi behar dio bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu dituela helburu bererako, edozein dela ere administrazio edo erakunde emailea (publiko zein pribatu).

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartu zen inguruabar objektibo zein subjektiboren bat aldatzen bada, erakunde emaileari jakinarazi behar dio.

Seigarrena.– Eskabidearen edo proiektuaren aldaketak.

Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzetako edozein aldaketa izanez gero eta, nolana ere, helburu berarentzat beste administrazio edo ente publiko edo pribatuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak aldi berean jasoz gero, idatziz jakinarazi behar zaio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari; eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea honela:

a) Emandako dirulaguntza galtzea dakarten dirulaguntzaren baldintzen aldaketak honako hauek izango dira:

a.1.– Deialdi honetako oinarri-arauak osotasunean edo zati batean ez betetzea.

a.2.– Datuak ezkutatzea, aldatzea, edo eskabidean edozein manipulazio egitea.

a.3.– Ikerketa-proiektu berean beste erakunde publiko edo pribatuetatik datorren finantzaketa metatzea.

a.4.– Ikerketa-proiektuaren edo ikerketa-taldearen osaeraren aldatzea, deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintzak galtzea badakarte.

a.5.– Esleipendunek ez mantentzea dirulaguntzak esleitzeko prozesuan puntuazioak emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk; galera hori prozesuaren hasieran gertatzen bada, dirulaguntza esleitzeko ezintasuna ekarriko du.

b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aztertuko ditu ikerketa-proiektuaren aldaketa esanguratsuak eta ikerketa-taldearen osaerak izandako aldaketak, aldaketa horiek ezarritako baldintzak ez mantentzea edo esleipena egiteko behar den puntuazioa ez mantentzea ez badakarte; eta, horren ondorioz, erabakiko du emandako dirulaguntza –guztiz edo zatika– itzultzeko espedienteari hasiera eman behar zaion.

Zazpigarrena.– Eskabideak: aurkezteko epea eta modua.

1.– Aurkezteko modua.

Dirulaguntza hauek eskuratzeko eskabideak izapidetze elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, arau hauekin bat etorriz: Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua.

Eskabidea egiteko inprimakiak nahitaez erabili beharko dira, eta erantzukizunpeko adierazpen hauek jasoko dituzte: laugarren oinarri-arauan zehazten diren inguruabarrak –deialdian parte hartzea eragozten duten inguruabar gisa– aldi berean gertatzen ez direla adierazten dutenak.

Helbide elektroniko honetan izapidetuko dira eskabideak elektronikoki: www.ivap.euskadi.eus/ikerketa_sustatzea_2021/z16-h2home/eu

2.– Aurkezpena egiteko baldintzak.

Eskabideak izapidetzeko, identifikazio eta sinadura elektronikorako Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioako Egoitza Elektronikoa onartutako edozein bitarteko erabili ahal izango da. Bitartekok helbide honetan kontsultatu ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

3.– Deialdian ezarritako parte-hartzaileen betekizunak eta baloratzen diren merezimenduen alegazioa eta egiaztapena:

A) Nahitaezko agiriak.

1.– Eskabideekin batera, ikerketa-taldeak honako nahitaezko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1.1.– Currículum vitaeak.

Apartatu hauek izango ditu:

- Datu pertsonalak.
- Prestakuntza akademikoa.
- Ikerketa-lanarekin zerikusi zuzena duten argitalpen zientifikoak.
- Hizkuntzak.

Ikerketa-taldea osatzen duen pertsona bakoitzaren curriculumak aurkeztu beharko da. Eredu normalizatuan aurkeztu daiteke, besteak beste, eskabideak egiteko helbide elektronikoa dagoen eredu normalizatuan.

1.2.– Ikerketa-proiektuaren memoria.

Hau nahitaez eredu normalizatuan aurkeztu beharko da. Eredu hori interesdunek eskuragarri izango dute eskabideak egiteko dagoen helbide elektronikoa. Agiri horrek ezin izango ditu 10 orrialde baino gehiago izan.

Memoria honetan, berariaz adierazi beharko dira hauek: ikerketa-proiektuaren izenburua; ikerketa-proiektua egitearen justifikazioa eta interesa; ikertu nahi den gaiaren aurrekariak eta egungo ezagutza-maila; ikerketaren helburu zehatzak; metodologia, lan-plangintza eta kronograma.

Era berean, adierazi beharko dira ikerketa-taldeko kide bakoitzak egingo duen lana eta jasoko duen dirulaguntzaren ehunekoa. Ikerketa-taldeko kide guztiak onuraduntzat joko dira, dirulaguntza jasotzen badute.

1.3.– Ikerketa-taldearen ordezkari bat izendatzea, ikerketa-taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko adina botere duena. Ordezkaritza egiaztatzeke, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada. Ondorio horietarako, ordezkari egiaztaturik geldituko da *apud acta* ahalordetzearen bitartez egin bada, agerraldi pertsonala eginez edo Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioako Egoitza Elektronikoa agerraldi elektronikoa eginez, edo egoitza elektronikoa horren ordezkarien erregistro elektronikoa (<https://euskadi.eus/ordezkaririk>) inskribatu izana egiaztatuz.

1.4.– Unibertsitate-titulua, ikerketa-taldea osatzen duten pertsona bakoitzarena, titulu hori estatu honetatik at eskuratu baldin bada, ikerketa-taldeak aurkeztu beharko du homologazioa egiaztatzen duen agiria, edo dagokion unibertsitatearen edo aginte akademikoaren ziurtagiria, alegatutako titulua eman zen estatuan goi-mailako unibertsitate-titulua dela jasotzen duena.

2.– IVAPek elektronikoki kontsultatuko edo eskuratuko dituen nahitaezko agiriak, bi salbuespenekin: alde batetik, ezinezkoa izatea IVAPek datua lortzea edo egiaztatzea –kasu horretan, ezintasuna egiaztatu ondoren, interesdunei eskatuko zaie aurkezteko–; bestetik, interesdunek berriaz aurka egiten badute, zazpigarren oinarri honen 6. apartatuan adierazitako terminoen eta baldintzen arabera –kasu horretan, oinarri horretan adierazitako ondorioak aplikatuko dira–:

2.1.– Unibertsitate-titulua, ikerketa-taldea osatzen duten pertsona bakoitzarena, baldin eta estatu honetan eskuratu baldin bada.

2.2.– Ikerketa-taldearen partaideen erdiek, gutxienez, 2020ko urtarrilaren 1az geroztik edo lehenagotik, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-azotartasuna dutela adierazten duen edo duten erroldatze-ziurtagiria edo ziurtagiriak.

Horretarako, eskabidean adierazi beharko da zein diren baldintza hori beteko duten taldeko pertsonak.

B) Deialdi honen xede diren dirulaguntzak esleitzeko prozesuan baloratu daitezkeen merezimenduei buruzko dokumentazioa.

1.– Merezimenduen inguruko agiriari dagokienez, ikerketa-taldeak, eskabideekin batera, alegatu eta dagokien agiriak aurkeztu beharko ditu, gai hauei buruzko merezimendu direnean:

1.1.– Zazpigarren oinarri-arau honetako 3.B.2.1 apartatuaren lehenengo paragrafoaren barruan gelditzen ez diren euskararen titulu eta ziurtagiriak.

1.2.– Autonomia-erkidego honetan ofizialak ez diren hizkuntzak.

1.3.– Argitalpenak.

Zazpigarren oinarri-arauko 3.B.1 apartatu honetan aipatutako merezimenduak aintzat hartu ahal izateko, behar bezala egiaztatu beharko dira. Horrela egiten ez bada edo eskabideak aurkezteko epea kanpo aurkezten badira, merezimenduen egiaztagiriek ez dute baliorik edukiko.

2.– Ikerketa-taldeak alegatu behar ditu merezimenduen inguruko agiriak, eskabidearekin batera. IVAPek agiri horiek elektronikoki kontsultatuko edo eskuratuko ditu, bi salbuespen hauekin: alde batetik, ezinezkoa izatea IVAPek datua lortzea edo egiaztatzea –kasu horretan, ezintasuna egiaztatu ondoren, interesdunei eskatuko zaie aurkezteko–; bestetik, interesdunek berriaz aurka egiten badute, zazpigarren oinarri honen 6. apartatuan adierazitako terminoen eta baldintzen arabera –kasu horretan, oinarri horretan adierazitako baldintza eta ondorioak aplikatuko dira–:

2.1.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Hel-duen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakundeak emandako euskararen titulu eta ziurtagiriak.

Aurreko paragrafoaren barruan gelditzen ez diren euskararen titulu eta ziurtagiriak alegatu eta egiaztatuko dira, zazpigarren oinarri-arau honetako 3.B.1.1 apartatuan adierazitakoaren arabera.

2.2.– Doktoregoa.

4.– Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabeteko izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluen arabera, eskabideak edo ikerketa-taldeak aurkeztu behar dituen nahitaezko agiriek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, edo horien edukia nahikoa ez bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio hamar egun balioudun dituela nahitaezko dokumentazioa osatzeko edo akatsa zuzentzeko; eta, horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta horretarako administrazioak dagokion erabakia hartu eta jakinaraziko duela.

IVAPek eskuratu edo kontsultatu beharko dituen agiriak –bai nahitaezko agiriak izanda, bai ikerketa-taldeak alegatutako merezimenduen inguruko agiriak izanda–, IVAPek ezin baditu eskuratu edo kontsultatu, salbuespenez, interesdunari agiri horiek aurkeztea eskatu ahal izango zaio.

6.– IVAPek agiriak eskuratzeko edo kontsultatzeako, interesdunak aurka egitea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, eta indarrean dagoen datu-babesaren inguruko araudiaren arabera, IVAPek agiriak elektronikoki eskuratu edo kontsultatu behar dituen kasuetan interesdunak aurka egiteko espresuki adierazi beharko du. Kasu horretan, IVAPek dagokion agiria eskuratzearen edo kontsultatzearen aurka egiteko eskabidean dagoen laukitxoa markatu beharko du interesdunak.

Interesdunak adierazten badu deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzen alegazioari eta egiaztapenari buruzko dokumenturen bat edo batzuk IVAPek elektronikoki kontsultatzearen edo eskuratzearen aurka dagoela, pertsona horrek dokumentu horiek aurkeztu beharko ditu. Bestela, pertsona hori ezin izango da onartu deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak esleitzeko prozesuan.

Aitzitik, interesduna prozesuan baloratu daitezkeen merezimenduei buruzko dokumentuak IVAPek kontsultatzearen edo eskuratzearen aurka badago, merezimendu horiek ezin izango dira prozesu horretan baloratu, salbu eta interesdunak eskabideak aurkezteko aldiak dagokion dokumentazioa aurkezten badu.

7.– Gainerako izapideak.

Norberaren espedientean sartzeko eta haren jarraipena eta izapideak egiteko egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatu berezira jo behar da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Zortzigarrena.– Eskabideen balorazioa.

Aurkeztutako eskabideak xede horretarako eratuko den balorazio-batzorde batek baloratuko ditu.

I.– Balorazio-baremoa.

Esleitzeko baremoa hau izango da:

a) Ikertzailearen curriculum: gehienez ere, 20 puntu.

Ikerketa-taldea osatzen duten pertsonen ikerketa-kalitatea egiaztatze balioko du.

Curriculumaren balorazio-irizpideak hauek izango dira:

1.– Doktoregoa. Gehienez ere, 6 puntu. Pertsona bakoitzaren doktorego-tituluak batuko dira, aipatutako mugaraino, zehaztutako honen arabera:

– 3 puntu: doktorego bakoitzeko.

2.– Ikerketaren helburuarekin zuzenki lotutako argitalpenak: gehienez ere, 8 puntu. Puntuazioa modalitate hauek baloratzen dituztenak dira:

- Monografiak.
- Liburuen kapituluak.
- Aldizkarien artikulak.
- Bestelako argitalpenak.

3.– Euskara: gehienez ere, 4 puntu.

4.– Bestelako hizkuntzak: gehienez ere, 2 puntu. Hizkuntza bakoitzeko puntu bat.

Hizkuntzak dokumentu bidez egiaztatu beharko dira, balorazioan kontuan hartzeko. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren arabera, ezagutza-maila C1 edo handiagoa izan beharko da.

b) Ikerketa-proiektua: gehienez ere, 80 puntu.

1.1.– Proiektuaren enuntziatuaren interesa: gehienez ere, 5 puntu. Arlo horretan ikertzeko beharrezkoak, Administrazioarena eta gizartearena, eta gai horren berrikuntza.

1.2.– Ikerketa-proposamenaren argitasuna, zuzentasuna, ordena eta egitura: gehienez ere, 15 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektuaren garapenerako ideien argitasuna.
- Memoriako azalpenak zuzentasunez eta argi idatzita egotea.
- Ordena eta egitura egokia.

2.– Ikerketa-proposamenaren izaera berritzailea: gehienez ere, 20 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Ikerketa-gaiaren eta helburuen egokitasuna eta berritasuna, hori guztia deialdiaren baldintzeekin eta eskabidea mugatzen den arloaren ezagutza propioaren egoerarekin lotuta.
- Gainerako taldeen ikerketarekiko gainezarpenerik gerta ez dadin baloratuko da.
- Proiektuak zientziaren eta gizartearen aurrerapenera ekar diezazkiokeen onurak.

3.– Ikerketa-proposamenaren kalitatea, interesa eta garrantzia: gehienez ere, 20 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Ikerketa-proposamenaren kalitate zientifikoa.
- Helburuen interesa eta garrantzia, eta deskribapen zehatza.
- Lortutako emaitzen erabilgarritasuna nahiz eragina, administrazio-teorian nahiz -praktikan.

4.– Ikerketa-proposamenaren diseinua, bideragarritasuna eta metodologia: gehienez ere, 20 puntu. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektua eta lan-plangintza egokitzea deialdiaren denbora-mugetara.
- Proposatutako planteamendu metodologikoak proiektuaren helburuei eta hasierako hipotesiari egokitzea.

– Lanaren faseen eta iraupenaren plangintza eta deskribapen doitua, betiere deialdian aurreikusitako epeen barruan. Kronograma nahiz lan-egitasmo bat aurkeztea baloratuko da.

Balorazio-baremoko b) apartatuan gutxienez 50 puntu lortu ez duten eskabideei ezin izango zaie inolako dirulaguntzarik esleitu.

Merezimenduak hobeki balioesteko egokitzat jotzen bada, elkarriketa egin ahal izango zaie ikerketa-taldeak osatzen dituzten pertsoneri.

II.– Balorazio-batzordea.

1.– Eginkizunak.

Deialdi honen esparruan, balorazio-batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

– Aurkeztutako eskabideak baloratzea, dirulaguntzen esleipen-proposamena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritzara helarazteko xedearekin.

– Esleipendunek egindako ikerlanen kalifikazioa, ikerketa-taldeari esleitu behar zaien diru-kopurua eta argitalpenaren inguruan esleipen-proposamena emateko helburuarekin, deialdiaren hamaikagarren oinarri-arauan ezarritakoarekin bat etorrita.

2.– Osaera.

Honako hauek izango dira balorazio-batzordeko kideak:

Batzordeburua:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusia edo berak izendatutako ordezkoa.

Batzordekideak:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpenen arduraduna edo berak izendatutako ordezkoa.

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuko teknikari bat edo berak izendatutako ordezkoa.

– Deialdian adierazten diren gaietako aditu bi, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuak.

Idazkaria:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuko teknikari bat edo berak izendatutako ordezkoa. Idazkariak hitza eta botoa ditu.

Balorazio-batzordea osatzerakoan, ahaleginak egingo dira trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egon dadin. Ondorio horretarako, ordezkaritza orekatua izango da baldin eta sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza baldin badu.

Edozein sexuri dagokionez, aurrean adierazitako ehunekoa betetzea ezinezkoa edo oso zaila gertatzen bada, ezintasun edo zailtasun hori zurituko da balorazio-batzordea osatzen duten aditu biak izendatzen dituen ebazpenean.

Halaber, balorazio-batzordeak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak edukiko ditu kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, izaera horrekin bakarrik elkarlanean arituko baitira balorazio-batzordearekin.

3.– Funtzionamendua.

Balorazio-batzordeak botoen gehiengo soiluz hartuko ditu erabakiak. Kide anitzeko organoa den heinean, oinarri-arau hauetan berariaz jasotzen ez denerako, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 15-24 artikuluetan jasotakoa izango da araubidea.

Batzordeburua edo idazkaria, edo izendatutako ordezkoa, balorazio-batzordearen bileraren batera agertu ezean, eta quorum nahikoa betetzen bada, bilerara azaldutako kideen gehiengoaz erabakiko da haien artean nork beteko dituen batzordeburuaren edo idazkariaren eginkizunak.

Bederatzigarrena.– Dirulaguntzak esleitzea eta onartzea.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariak, ebazpen baten bidez, dirulaguntzaren esleipena egingo du, edo dirulaguntza horien esleipena erabat edo partzialki hutsik geratu dela adierazi.

1.– Esleipena.

Dirulaguntzak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bidez esleituko dira. Ebazpenak honako hau jasoko du:

– Dirulaguntzen esleipendun gisa aukeratutako ikerketa-proiektuak, eta, hala badagokio, hutsik gelditu diren dirulaguntzak.

– Hala badagokio, ordezkoak izango diren ikerketa-proiektuen zerrenda.

Dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpena, edo deialdia hutsik uzten duena, egun berean argaitarutako da bai deialdiaren Interneteko helbide elektronikoa, bai Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, argitalpena egin den eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabeteko epea igaro baino lehenago.

2.– Onarpena.

Dirulaguntza bakoitzaren onarpena esleipendun diren ikerketa-taldeek aldetik, egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi baten bidez jakinarazi beharko da, hamar egun balioduneko epean. Epe hori esleipen-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta deialdiaren Interneteko helbide elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da. Argitalpena egun berean egingo da.

Lehenago aipatutako dirulaguntzaren onarpen-idatzian zehaztu beharko da taldekide bakoitzak zein ehunekotan parte hartzen duen ikerketa-proiektuan, dagozkion ordainketak egite aldera.

Balorazio-batzordeak esleipendunei egin ahal izango dizkie egoki irizitako oharra, ikerketa-proiektuaren memoria garatuko duen aurkeztu beharreko lanari dagokionez.

Esleipendun diren ikerketa-taldek dirulaguntza bakoitza onartzeak deialdi honetako oinarri-arauetan ezartzen diren baldintzak onartu beharra dakar; eta baita, ikerlanaren jarraipenari begira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendaritzak eman ditzakeen ebazpenak onartu beharra ere.

Hamargarrena.– Emandako dirulaguntzen ondoriozko lanak aurkeztea.

Ikerlana orrialde zenbakiak jarrita aurkeztuko da, eta aurkibide bat izango du, edukien hasierako orrialde-zenbakia aipatzen duena.

Dirulaguntza bakoitzaren xede diren ikerketa-proiektuak aurkezteko epea 2022ko irailaren 24an amaituko da. Lan horiek egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) aurkeztuko dira.

Hamaikagarrena.– Dirulaguntzak ordaintzea. Zenbatekoa zehazteko sistema.

1.– Ordainketak.

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

1) Lehenengo ordainketa, bost mila (5.000) eurokoa, dirulaguntza onartzearekin batera. Zenbateko horrek ikerketa-jarduera garatu ahal izatea du xede, eta konturako ekarpenaren izaera du. Beraz, lehenengo ordainketa horretan jasotakoa baldintza suntsiarazlearen mendean dago; izan ere, azkenean aurkezten den lanak ez badu lortzen IVAPeko liburutegian gordeta gelditzeko kalifikazio nahikorik, hurrengo leerroaldian adierazitakoaren arabera, lehenengo ordainketako diru-kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari itzuli beharko dio ikerketa-taldeak.

2) Bigarren ordainketa, hamabost mila (15.000) eurokoa.

2.– Ikerlanen kalifikazioa eta dirulaguntzen bigarren ordainketa.

Bigarren ordainketaren zenbateko zehatza aurkeztu diren ikerketa-monografiak lortutako kalifikazioaren arabera izango da. Balorazio-batzordeak, monografiaren analisiaren ondoren, irizpide hauen arabera egingo du bere kalifikazioa, 10 puntu gehienez emanda:

A) Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako proiektua betetzea: 5 puntu, eta horietatik 4 puntu beharko dira B) apartatuan dauden irizpideetan puntuazioa lortzeko. Irizpide honen barruan baloratuko dira:

A.1.– Monografiaren egokitzapena, aurkeztutako proiektuari dagokionez; bereziki, proposatutako helburuen garapenari dagokionez, helburu bakoitzaren garrantzia haztatuta, hala badagokio.

A.2.– Ikerketa-taldeko kide bakoitzak ikerketa-proiektuaren memorian bere gain hartutako konpromisoa betetzea.

B) Ikerlanaren kalitatea: 5 puntu. Irizpide honen barruan baloratuko dira:

B.1.– Ikerketaren kalitate zientifikoa; planteamendu metodologikoen egokitzapena eta zuzentasuna.

B.2.– Ideien argitasuna, zuzentasuna eta monografiaren azalpenen zehaztasuna.

B.3.– Monografiak ikertutako alorrean proposatu dituen berrikuntzak.

B.4.– Lortutako emaitzen erabilgarritasuna nahiz eragina, administrazio-teorian nahiz praktikan.

Esleitutako dirulaguntza bakoitzak jasotako kalifikazioa eta bigarren ordainketaren zenbatekoa elkarloturik daude, honen arabera:

a) 8,5 edo hortik gorako puntuazioa jaso duten monografiak:

Hamabost mila (15.000) euro.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak lan horiek argitaratuko ditu, deialdi honetako hamabosgarren oinarri-arauan ezarritakoarekin bat etorrira.

b) 5 eta 8,4 bitarteko puntuazioa (biak barne) jaso duten monografiak:

Ez dute bigarren ordainketarik jasoko.

Lan hauek Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko liburutegian gordeko dira, deialdi honetako hamalagarren oinarri-arauan ezarritakoarekin bat etorrira. Egindako ikerlana liburutegiko katalogoan sartuko da, irakurleentzat eta etorkizuneko ikerlariantzat ekarpen baliagarriak dauzkan lan legez.

c) Ez-gai kalifikazioa (5etik beherako puntuazioa) jaso duten monografiak:

Ez dute bigarren ordainketarik jasoko eta lehenengo ordainketa itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Emandako dirulaguntza itzultzea, hala badagokio, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat etorriz egingo da: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikulua; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten izaki laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Hamabigarrena.– Dirulaguntzei uko egitea.

Dirulaguntzari ikerketa-talde osoak uko egitea, egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi bidez jakinarazi beharko da, eta esleipenari dagozkion eskubide ekonomiko guztiak galtzea ekarriko du. Ukoa beste izapiderik gabe onartuko da. Kasu horietan, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen zuzendariak erabakiko du, uko egitearen data kontuan hartuta, puntuazioaren hurrenkeraren arabera hurrengo talde ordezkari dirulaguntza emango zaion.

Ikerketa-talde bateko kide baten edo batzuen aldetik ikerketa-proiektuari zati baten uko egitea, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari egoitza elektronikoko «Nire karpeta» apartatuan (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) telematikoki aurkeztutako idatzi bidez jakinarazi beharko zaio, eta eskabidearen aldaketatzat joko da. Hortaz, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak ebaluatu beharko du, deialdiaren seigarren oinarri-arauan jasotakoaren arabera, emandako dirulaguntza guztiz edo zati baten baliogabetu behar den zehazteko, baita jasotako zenbatekoen itzulketa gauzatzeko ere.

Hamahirugarrena.– Ikerlanak jabetza intelektualaren erregistroan inskribatzea.

Ikerketa-taldearen ordezkari gisa izendatutako pertsonak esleitutako ikerlana jabetza intelektualaren erregistroan jaso beharko du, ikerlana Herri Ardularitzaren Euskal Erakundean jaso eta hurrengo egunetik aurrera urtebeteko epean, gehienez ere. Esandako epean inskripzioa egitea ezinezkoa bada, eta betiere epe hori igaro aurretik, jasotzaileak, arrazoiturik, agerian jarriko du ezintasuna. Lehen aipatutako urtebeteko epean inskribatzeko ezintasuna guztiz egiaztatzen den kasuetan, inskripzioa egiteko beste epe bat ireki ahal izango da. Lehen aipatutako epean inskribatzeko ezintasuna adierazten duen jakinarazpena jasotzen ez bada, eta betiere epe hori igaro eta gero, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak ikerlana inskribatu egin duela ulertuko du.

Hamalagarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko liburutegian gordetako ikerlanak.

11.2 oinarri-arauaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko liburutegian gordeko diren egindako ikerlanak, jabetza intelektualerako eskubideari buruzko araei loturik baino ezin izango dira erabili.

Ikerlan horietako baten bat beste argitaratzaile edo argitaletxe batek argitaratzen badu, egileak argitalpen horren berri eman beharko dio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eta bi ale bidaliko dizkio. Argitalpenaren berri eta bi aleak jaso eta gero, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak lehen liburutegian gordetako ikerlana kenduko du.

Hamabosgarrena.– Deialdi honen barruan egindako ikerlanak argitaratzeko eskubideak.

Dirulaguntza onartzeak berekin dakar Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari egile-eskubi-deak dohainik lagatzea, hamar urteko eperako eta edozein hizkuntzatarako, balorazio-batzordeak ikerlanari argitaratzeko kalifikazio nahikoa emanez gero. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak urtebeteko epean ikerlanaren argitalpena aurrera eramateko konpromisoa hartzen du; epe hori zenbatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo erakunde horren argitalpen zerbitzuen esleipendunak diren enpresek bete behar dituzten izapideak eta betebeharrak betetzeko denborak besterik ez dira kontuan hartuko.

Egindako ikerlana beste lan zabalago baten atala bada, IVAPek eta lanaren egileek testua oso-osorik argitaratzea adostu dezakete; hori dela eta, egileek IVAPi lan osoa ustiatzeko eskubi-deak lagako dizkiote.

Edozein modutan ere, deialdi honetatik sortutako ikerlanen edizio guztietan, bai lan osoa izanda bai zati batekoa, egileek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundetiko dirulaguntza eskuratu dutela adierazi behar dute.

Hamaseigarrena.– Lan-kontratupeko lotura eza Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin.

Aipaturiko dirulaguntzak ez dakar inolako kontratu-loturarik Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta jasotzaileen artean.

Hamazazpigarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Deialdiak eragina izan duen egunetik sei hilabete igarota, deialdiaren Interneteko helbide elektronikoa eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez badago esleipena egiteko erabakirik argitaratuta, interesdunek ezezkotzat hartu beharko dute beren eskaera. Hori dena Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluaen arabera.

Hemezortzigarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Arau hauek bete ditugu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra) pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako legeak. Ondorioz, jakinarazten dugu datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «Ikerketen sustapena». Tratamendu horren helburua da deialdi hau kudeatzea eta ebaztea.

Tratamenduaren arduraduna da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza. Datuak irispidean izateko eskubidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta emateko eskubideak, tratamendua mugatzeko eskubidea, tratamenduaren aurka egiteko eskubidea eta emandako

adostasuna errebokatze eskubidea, edo aplikagarria zaion araudiak arautzen dituen gainerako eskubideak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritzaren zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean balia daitezke.

Irabazleen datuak difusio-jardueretan erabil daitezke, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari eta dagokion zerga-administrazioari jakinaraziko zaizkie. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako, lege-betebeharra existitzen ez bada, eta ez zaizkie transferituko hirugarren herrialdeei.

Hemen kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia:
https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0602_eu.html